

16 AKTA

2001eko abenduaren 20an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**

Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean, bi mila eta bateko abenduaren hogeian, Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian eta Joseba Belaustegi Cuesta Idazkaria bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira:

Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.
Obdu Lorenzo de Dios a.

arauz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko. Ezin etorria agertu dute Angel Ouviaña Vidal eta Joseba Xabier Portugal Arteaga jaun zinegotziek.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 12:45etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldietako aktak 13 eta 14 a. hurrenez hurren 01-11-12 eta 01-12-11 datakoak irakurri eta onartzea.

Bertakoen kontsiderazioan jarriarik atalburuan aipatzen diren aktak, Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat eman eta dagokien Akta-liburuan transkribatzea.

2.- 01/14. Kontu fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea 14/01 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda, HEMERETZI MILIOI BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA LAU (19.253.824,-) pezetakoa.

3.- 6. ziurtagiria: "C-1 Merkatuaren inguruko Antxo Hiriguneko Berrurbanizazioa" obrarena.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotziena aho batez, erabaki du ontzat ematea "C-1 Merkatuaren inguruko Antxo Hiriguneko Berrurbanizazioa" obraren 6. ziurtagiria, Joan Karlos Lapazaran, Igor

Urrutia eta Jose M^a Irazusta (Udal Aparejadorea) Obra Zuzendari Jaunek luzatua CONSTRUCCIONES DONOSTI enpresa kontratistaren alde, SEI MILIOI ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU (6.772.273,-) pezetakoa.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko D-1659/00 eta D-1660/00 disposamenduen kargura.

4.- 8. ziurtagiria: "San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide Hiri Eremua berriro hiritartzea" obrarena

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea "San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide Hiri Eremua berriro hiritartzea" obraren 8. ziurtagiria, Joan Karlos Lapazaran (Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea) obrako jaun Zuzendariak luzatua CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A. enpresa kontratistaren alde, SEI MILIOI BERREUN ETA LAUROGEITA HAMASEI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU (6.296.873,-) pezetakoa.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko D-1388/01 disposamenduaren kargura.

5.- 10. ziurtagiria "Ulia Etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko" obrarena.

Gobernu Batzordeak, aurrez Udal Aparejadoreak aldeko txostena emanik eta bertako zinegotzien aho batez erabaki du "Ulia Etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko" obraren 10. ziurtagiria ontzat ematea Eduardo Satostegi Obrako Jaun Zuzendariak luzatua CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A. enpresa kontratistaren alde, ZORTZI MILIOI HIRUROGEITA HAMAZAZPI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA LAU (8.077.544,-) pezetakoa.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko D-1270/00, D-1495/01 eta D-1496/01 disposamenduen kargura

6.- Presoen familia artekoen gastuetarako dirulaguntzak.

Kontuan izanik 2000ko maiatzaren 29ko udal-batzaren akordioz erabaki zela presoen senideei laguntzeko kriteriotzat hartzea desplazamendu-gastu guztien (garraioa) finantziazioa eta baita ostatu eta dietena ere bere beharra horrela justifikatuko den kasu bakoitzean eta Batzordeak horrela ontzat emango duenean kasuka hilean bi bisita senideei espetxe frantsesetan eta espainoletan aurkitzen badira eta Kuban eta Venezuelan deportatuak daudenen senideei urtean bidaia baten gastu guztien finantziazioa, denak behar bezala justifikaturik.

Espedientean agertzen direlarik laguntzen eskaera eta Pasaia preso edo deportatuen senideek aurkezturiko gastuen dokumentazio justifikatzailea: Jon Urkizu, Xabier Sagarzazu, Joseba Urrusolo, Juanjo Aristizabal, Gabriel Zabala, Luxiano Eizagirre eta baita Trintxerpeko Karmengo Amaren Parrokiako Pastoral Penitentiarioa ere, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez, aurrez dokumentazioa frogaturik,

ERABAKI DUTE

LEHENENGO.- Hurrengo laguntzak ematea:

- a) JUANJO ARISTIZABALen familiari 256.158,- pezetako laguntza ematea IBON ARISTIZABAL IDIGORAS jaunari ingresatuko zaiona EHNA 44.128.129, k/k Kutzako 2101-0041-050107508905 zka.
- b) LUXIANO EIZAGIRREren familiari 261.400,- pezetako kantitatea ematea, JOSEBA EIZAGIRRE MARISKAL jaunari ingresatuko zaiona, EHNA 15.902.606-S, k/k Kutzako 2101-0089-640121338289 zka.
- c) XABIER SAGARZAZUren familiari 158.542,- pezetako laguntza ematea MARTIN SAGARZAZU OLAZAGIRRE jaunari ingresatuko zaiona, EHNA 15.055.194, k/k Kutzako 2101-0089-660019174846 zka.
- d) JON URKIZUren familiari, 148.430,- pezetako kantitatea ematea M^a LUISA URKIZU ORMAZABAL andreari ingresatuko zaiona, EHNA 15.941.662-V, k/k Kutzako 2101-0060-060137322798.
- e) GABRIEL ZABALaren familiari 274.830,- pezetako laguntza ematea KRISTINA GOIKOETXEA MUNOA andreari ingresatuko zaiona, EHNA 15.916.826, k/k LKAko 3035-0063-83-0630005257.
- f) JOSEBA URRUSOLOren familiari 461.486,- pezetako kantitatea ematea GEMA PEREZ BERRUETA andreari ingresatuko zaiona, EHNA 15.922.658, k/k Kutzako 2101-0089-640120337811.

- g) FRANTZISKO XABIER SAN MATIAS RODRIGUEZen familiari, 93.984,- pezetako laguntza ematea ANTONIO SAN MATIAS SANCHEZ jaunari ingresatuko zaiona, EHNA 07.716.457-A k/k Kutxako 0106490519 zka.
- h) ALBINO LUZAN VAZQUEZEn familiari 89.952,- pezetako laguntza ematea ANGELA VAZQUEZ SANCHEZ andreari ingresatuko zaiona, EHNA 35.413.508-V k/k Kutxako 2101-0003-05-01363-26030 zka.

Hau guztia honetarako sortutako partidaren kargura.

7.- AN/11 Biteri 02-03-ZUM 11/13 Exekuzio Unitatearen konpentsazio proiektua. Behin betiko onartzea.

Kontuan izanik 2001ko urriaren 25eko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez ontzat eman zela probisionalki AN/11 Biteri 02-03-ZUM 11/13 Exekuzio Unitatearen konpentsazio proiektua, JOXE LEON MITXELENA ROTETA-k bultzatua EUBIDE-ENEA, S.L.-ren izen eta ordezkartzan eta Kristobal Bernabé Treku eta Juan Jose Quevedo Ruipérez jaunek erredaktatuko proiektuaren arabera.

Kontuan izanik herri-informazioan zehar ez dela inolako alegaziorik aurkeztu.

Kontuan izanik 200eko abenduaren 10eko udal-batzan ontzat eman zela 30.000.000,- pezetatan baloratu eta Administrazioari dagokion aprobetxamenduaren %10aren monetarizazioa.

Ikusirik Hirigintzaren Kudeaketaren Arautegiko 174 artikulua abuztuaren 25eko 3288/1978 Erret Dekretuaren bidez onartua.

Ikusirik 2001eko abenduaren 20ko Hirigintzako Teknikariaren Ebazpen proposamena, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- AN/11 Biteri 02-03-ZUM 11/13 Exekuzio Unitatearen jabe bakarraren konpentsazio Proiektua behin betirako onartzea, Kristobal Bernabé Treku Arkitektu jaunak eta Juan Jose Quevedo Ruipérez abokatu jaunak erredaktatuko proiektuaren arabera eta EUBIDE-ENEA, S.L. ren izen eta ordezkartzan JOXE LEON MITXELENA ROTETA jaunak bultzatua, hurrengo baldintzekin:

- a) Interesatuak Udalaren diru-kutxan sartu beharko du 30.000.000,- pezetako kantitatea Udalari egin beharreko zesioaren aprobetxamenduaren %10aren balorazio ekonomikoari dagokiona.
- b) Lizentzia eman baino lehenago 16.888.800,- pezetako kantitatea sartu beharko ditu urbanizazio-kuotari dagozkionak.

BIGARREN.- Udal Kontuhartzaileak konpentsazio-proiektua izapidatzearen tasa likidatuko dio.

HIRUGARREN.- Konpentsazio proiektua Jabetzaren Erregistroan inskribatuko da Erregistradoreak hala eskatuta partzelek karga urbanistikoei afekta diezaien, Hirigintzako Kudeaketaren Arautegiko 126. artikulua araber, likidazio-kontua bermatzeko.

LAUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsoekin.

8.-Azkuene aparkalekuko ekipamenduak.

Acuña enpresak, hau da Azkuene aldean aparkalekua eta urbanizazioa egiten ari denak luzatzen duen proposamena ikusirik.

Ikusirik ere udal arkitektoak egiten duen txostena eta ikusirik proposamenak duen interesa. Gobernu Batzordeak, bertako zinegotziek aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Udal lurren gainean eraikitako arautu gabeko ekipamendu komunitarioa obran geratzen den zatia hartzea, hau da, 292,09 m², 68.500 pzta/m²ko, orotara 20.008.165 pezeta.

BIGARREN.- Erosketa honengatik (3.201.306) eta Gobernu Batzordeak konpentsazio bidez hartu zuen zatiagatik (3.521.912) sortzen den BEZa ordaintzea, hau da 6.723.218 pezeta.

HIRUGARREN.- Gastu hau Udal Zoru Ondarearen partiden kontra egitea, ekipamenduaren helburua inguruan egitear dauden hainbat ekintza urbanistiko ahalbideratzea baita.

LAUGARREN.- Aipatu kopuruak era honetan ordaintzea:

- 3.521.912 + 10.004.083 pezeta akordioa onartzen den momentuan.
- 10.004.082 + 3.201.306 eraikuntza eskrituraten denean.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-1408/01 baimenduaren kargura.

- Gaizerrendatik at eta aurrez bertako zinegotzien aho batez akordioa lorturik, hurrengo puntuak aztertu dira:

9.- “San Pedro 2.01 Morales Oliver. Eremua: Markina Injinerua eta Herriko Plazaren A.U.-ren urbanizazioa” obraren 3. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki du ontzat ematea “San Pedro 2.01 Morales Oliver. Eremua: Markina Injinerua eta Herriko Plazaren A.U.-ren urbanizazioa” obraren 3. ziurtagiria, Jose M^a Irazusta Obrako Zuzendaria den Udal Aparejadore jaunak luzatua COBRA enpresa kontratistaren alde, HAMAIIA MILIOI BEDERATZIEHUN ETA ZAZPI MILA, HIRUREHUN ETA BERROGEITA SEI (11.907.346,-) PEZETAKOA.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-457/01 Baimenduaren kargura.

10.- “San Pedro 2.01 Morales Oliver. Eremua: Markina Injinerua eta Herriko Plazaren A.U.-ren urbanizazioa” obraren 3. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki du ontzat ematea “San Pedro 2.01 Morales Oliver. Eremua: Markina Injinerua eta Herriko Plazaren A.U.-ren urbanizazioa” obraren 4. ziurtagiria, Jose M^a Irazusta Obrako Zuzendaria den Udal Aparejadore jaunak luzatua COBRA enpresa kontratistaren alde, HAMAR MILIOI HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI MILA ETA HEMEZORTZI (10.396.018,-) PEZETAKOA.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-457/01 Baimenduaren kargura.

11.- 2001eko kultur programei subentzioak.

Kultura eta Hezkuntzako Udal Batzorde Informatiboak 2001eko abenduaren 19ko diktameneko proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

Ondoren aipatzen diren kultur elkarteei 2001eko kultur programei dagozkien subentzioak ematea:

- ALKARTASUNA DANTZA TALDEA	
- 208.655,- pta.	
- C.A.S. AZKUENE	117.500,- pta.
- C.A.S. GATZAGA	109.200,- pta.
- FATO CULTURAL DANIEL CASTELAO	62.715,- pta.
- GRUPO EXPRESION DE TRINTXERPE	231.015,- pta.
- GURE KALPARRA BIZILAGUN ELK.	144.045,- pta.
- KEXALDI	75.000,- pta.
- TRINTXER KULTURALA	181.028,- pta.
- PASAIA LEZO LIZEOA (25.Urteurrena)	
- 250.000,- pta.	

GUZTIRA	1.379.158,- pta.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-143/01 Baimenduaren kargura.

12.- Ikastetxeei subentzioak. 2001eko 2. semestrea.

Kultura eta Hezkuntzako Udal batzorde Informatiboak 2001eko abenduaren 19ko diktameneko proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

Ondoren aipatzen diren Ikastetxeei 2001eko 2. semestrearim dagozkion subentzioak ematea:

- KARMENGO AMA H.I.	641.302,- pta.
- KARMENGO AMA H.I. GURASO ELKARTEA	20.116,- pta.
- PASAIA-LEZO LIZEOA	784.472,- pta.

GUZTIRA	1.445.890,- pta.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-1430/01 Baimenduaren kargura.

13.- Euskara ikasten ari diren pasaitarrei subentzioak.

Euskarako Udal Batzorde Informatiboaren Lehendakariak 2001eko azaroaren 26an egindako proposamenez, eta 1992ko ekainaren 1ean Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaren arabera, non onartu baitziren aipatu subentzioak emateko kriterioak, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

Euskara ikasten ari diren pasaitarrei hurrengo subentzioak ematea :

- MARTIN RODRIGUEZ, XABIER	26.350,- pta.
- MARTINEZ IRIGOIEN, EDURNE	6.750,- pta.
- RODRIGUEZ PAZ, CARLOS	40.700,- pta.
- JIMENEZ MUÑOZ, MOISES	13.500,- pta.
- PAZ BADIOLA, JAVIER	45.500,- pta.
- PAZ BADIOLA, JAVIER	24.000,- pta.
- MIRANDA BLANCO, GORKA	45.500,- pta.
GUZTIRA	<hr/> 202.300,- pta.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-1524/01 Baimenduaren kargura.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 15:15etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.

**ETA
EZ**

